

# Arkitektozik gabeko eraikuntza. Euskal Herriko kasuaren laburpena

Artikulu honek landagune eta hiriguneetako eraikinak aztertu nahi ditu. Titulazio akademikorik gabeko ofiziodunek diseinatu eta zuzendutako eraikin zibil eta xumeak dira. Euskal Herriko ipar isurialdeko testuingurura lerratuko da. Arkitekto tituludunak edo akademikoak XVIII. mendearen azken hamarkadan eta XIX. mendearen hasieran hasi ziren parte hartzen eraikinen proiektuen arduradun gisa. Garai hori izango da, beraz, azterketaren mugarria.



Kepa Iturralde \*

Gako-hitzak:  
hirigune/landagune dikotomia,  
XVIII-XIX. mendeak,  
zurgintza,  
hargintza

Etimologikoki, arkitektoa, grezierako 'arkitekton' (ἀρχιτέκτων) hitzetik dator, obra-burua esan nahi du. Hau da, eraikitzearen arduradun edo nagusia. Definizioari lerratuz gero, eraikin xumeenak ere badu nolabaiteko arduradun bat, beraz, beti izan da nolabaiteko buru bat. Hortaz, nola definitu arkitekto gabeko eraikuntza? Ahozko literaturarekin paralelotasuna eginez, herri-literatura idatzi gabea den moduan, aurretiaz marraztu gabeko eraikuntza primitiboa dela esan dezakegu "arkitektozik gabeko eraikuntza". Konposizio zein forma landurik bilatzeko asmorik ez duen erregistratu gabeko eraikuntza mota dela esan daiteke. Espezializatu gabeko lekuko eraikitzaileek testuinguru jakin batera egokitzen den eraikinak dira. Eraikuntza mota honetan, sorkuntza edo sormen-prozesua egon badago. Inguruneak, materialak, erabilerak eta eraikitze-tresneriak mugaturiko eraikuntza mota da. Erregistratu gabeko lanen fenomeno hau ez da eraikuntza-arlorra mugatzen. Izan ere, besteak beste ontzigintzan ere, ingeniariaren titulazioa sortu aurretik sekulako ontziak egiten ziren.

Esan beharra dago, eraikuntza mota hau anitza izan dela, eta garapena izan duela denboran. Zaila litzateke garaia zedarritzea teknika noiz aldatu izan den aintzat hartuta. Baina lehen garai bat, XVI-XVII. mendeak direla esan daiteke. Eta bukaera, berriz, XVIII-XIX. mendeak izango lirateke.

**Lehengaiak.** Inguruko materialekin eginiko eraikuntza mota honetan, ekonomia, gizarte-egitura eta ekologia bereziki hartzen ziren kontuan. Material nagusia, zura, eraikinaren edozein atal eraikitze baliagarria izan zen. Egitura zein barne eta kanpoko itxitura egiteko baliatzen zen. Zura, ordea, gero eta gutxiago erabili zen bukaeran. Bi arrazoi izan daitezke. Batetik, basoen gehiegizko ustiaketa, eta bestetik, teila, adreilu eta harriaren erabileraren zabalkuntza. Mantentze-lan gutxiago eskaintzeaz gain, azken material horiekin eraikin sendoagoak eraikitze aukera zegoen.


Eraikina egiteko orduan, jakintza edo teknika aplikatzen zen. Teknika hori erabiliaren erabiliaz sortu zen. Denboraren pode-

rioz ingurune bakoitzari egokituriko eraikuntza mota denez, jakintzaren gabeziak apurka-apurka konpontzen dira. Denboran zehar perfektzionatua izan den eraikuntza mota da. Erdi Aroko eraikuntzen marrazkietan ikusten da nola eraikinak ez diren gaur ezagutzen ditugunen modukoak, akabera edo erre-mate ugari falta zaizkie. Denbora aurrera joan ahala buruturiko hobekuntzak ziren eraikinaren funtzionamendua hobetzen zutenak, baina funtsean eraikinaren irizpide nagusia kolokan jartzen ez zutenak. Teknika bera aplikatzearen ondorioz, estetika homogeneousko eraikinak sortzen dira. Baserria adibide garbia da, forma orokorra mendetan zehar mantendu baitu.


XVII. mendearen bukaeran, gizartea konplexuago bihurtu ahala, eraikuntza-maisu ofizialen hierarkia (1. mailakoa, 2. mailakoa...) handitu zen. Eraikuntza egiteko zientzia nolabait erregulatzen zuten ofizialek. Ofizialen jakintza, belaunaldiz belaunaldi mantendu zen. Jakintzaren ikasketa umetan hasi zitekeen eta hainbat urtetan obran igaro ondoren, langile helduak izaera ofiziala izatera iris zitezkeen.

Gerta daiteke, ekosistema-aldaketa batek, edo teknika berrien ezartzeak, eraikitze mota hau aldaraztea. Denbora aurrera joan ahala, teila, adreilu, harria gailendu ziren eta zuraren erabilera gutxitu. XX. mendearen hasieran, Bizkaia zein Gipuzkoako basoak erabat agorturik zeuden. Gainera nekazaritza eta abeltzaintzarako lurretarako ez zegoen nahikoa tokirik. Bestalde, hormigoizko lehen patenteak indar handiz sartu ziren. Ondorioz, industrializazio-garaian geratu egin zen baserrien hedapena.

**Egitura** nagusia, barne-bilbea, zurezkoa izan ohi da kasurik gehienetan. Barne-bilbea esanez, zutabe, habe eta habeka adierazi nahi da. Hasiera, kanpo-bilbea erabat izaten zen zurezkoa. Baina XVII. mendetik aurrera, kanpo karga-hormak nagusitzen joan ziren. Harrizko hormaren erabilera, hasiera batean, egurrezko zutabeen osagarria izan zen. Kanpo karga-horma honen teknika hobetu ahala, eraikinak pisu gehiago izatea ahalbidetzen da.



XVIII. mende bukaerako egitura eskema.



Garai berean eginiko kaleko eta landa-guneetako eraikinek, eraikuntza sistema oso antzekoa dute. Antzekotasuna forma aldetik ere nabari da. Bilboko Zazpi kaleetako eraikina.



Bilboko Erribera kaleko begiratokia.

**Baserrria.** Landa-guneko eraikuntzari deitzen diogu. Nekazari-rien bizitza eta produkzioa egokitutako pieza isolatuak dira. Itxura mantendu du mendetan zehar. Paralelepipedo baten gainean dagoen bi isuriko teilatuak izaera berezia ematen dio. Ekoizte-gune bezala, XII. eta XIII. mendeetan du jatorria baserriak, nahiz eta gaur egun ezagutzen dugun eraikin-tipologiak XV. mendearen bukaeran hasi ziren.

**Kaleko eraikina** esatean, partzela gotikoan, hiri-bilboko eraikuntza esan nahi da. Teknikari loturiko espazio erresultantea da partzela gotikoa, zurezko habe batek modu normalean har dezakeen zabalera baitu.

Kaleko eraikinak, itxura aldakorragoa izan du mendetan zehar. Gaur egungo kasko historikoetako eraikinak XIX. mendekoak dira ia gehienak. Harlan-gaitzezko fatxada izaten dute normalean. Fatxada hauetan zutabe eta habeak enpotraturik izaten dira, barneko aldetik. Nahiz eta hasieran askoz baxuagoak izan, planta baxua eta beste lau oina izaten dituzte gehienetan. Gainera, teilatupea etxebizitzarako erabiltzen da gaur egun kasu askotan. Eraikin hauen eraikitze modua, zurezko portiko egitura batean oinarritzen da.

Portiko hauen arteko tarte horizontala, habexka eta gapirioen bitartez eta hauen gainean jarririko oholaz estaltzen zen. Kalera ematen duen azken portikoa itxeko, harrizko edo adreiluzko fatxada “arriostatzaile” bat ezartzen zen. Karkabara ematen duen azken portikoa asta bakarreko hormarekin ixten zuten. Barne-banaketa, asta-laurdenekoa izaten zen. Normalean, banaketa berdina izan ohi zen pisu guztietan.

Nahiz eta bertan bakarrik ez egin, begiratokia izan daiteke arkitektura mota honetan gehien azpimarra daitekeen ekarpena. Begiratokiak, barnealde eta kanpoaldearen arteko salto termikoa txikiagotzeko balio du gehienbat eta ondorioz, bero-kuntzan aurrezte handia dakar. Gainera, haize handiak jotzen duen inguruetan, leihoaren estankotasuna handitzeko ere balio du. XIX. mendekoak dira gaur egun ezagutzen ditugun beiraz estaliriko begiratokiak. Elementu honek zabalkunde handia du gaur egungo energia aurrezteko nahiaren ondorioz eta bertsio moderno ugari ditugu.

Lekukotasunaren aldarrikapena lortu nahian, arkitektura mota hau goraiatua izan da zenbait sektorearen artean. Gaur egun, eraikuntza “gezurtiz” josita ditugu bazterrek. Nahiz eta testuingurua erabat aldatua izan, bada eraikuntza mota honen forma imitatzen saiatzen den jendea. Gehienetan, interpretazio-eraikuntza mota horretan okerrak giten dira.

#### Bibliografia

- RUDOLFSKY, B. (1964): *Architecture Without Architects*, MoMA. [ISBN 0-8263-1004-4]
- SANTANA, A. [et al.] (2001): *Euskal Herriko baserriaren arkitektura*, Eusko Jaurlaritza. [ISBN 84-457-1699-9]
- SANTANA A., OTERO X. (1993): *Bertan 4 Baserrria*, Gipuzkoako Foru Aldundia. [ISBN 84-7907-119-2]
- OLIVER, P. ed. (1997): *Vernacular architecture*, Cambridge University Press, [ISBN 0-521-56422-0]

° Kepa Iturralde arkitektoa da.

